

Igandean egingo da uraren jaia Arrigorriagan

Bizkaiko urtegiek bil dezaketen uraren %73 dute une honetan

Bizkaiko urtegiek izan dezaketen uraren % 73 dute eta ur horniketan arazorik ez dago atzo Juan Jose Olabarria Bilboko Ur Partzuergoko buruak esan zuenez.

G. Agirre / Bilbo

JUAN JOSE OLABARRIA Bilboko Ur Partzuergoko lehendakariak eta Maria Esther Solabarrieta Bizkaiko Ingurugiro diputatuak V.Uraren Jaia aurkeztu zuten atzo. Jaia igande honetan ospatuko da Arrigorriagan dagoen Venta Alta ur araztegian.

Jaiaren helburua hiritarrak uraren aprobetxamendu eta erabilera egokiaren garrantziaz ohartaraztea dela jakinerazi zuen Olabarriak. Haren ustez, «hiritarrok oro har ez gara uraren garrantziaz jabetzen, bakarrik faltan dugunean. Orduan ohar-tzen gara ura bizia bera dela».

Igandean ospatuko den Jaia-ekin «etxeko iturria irekitzeko mugimendu automatikoaren atzean dagoen guztia erakutsi» nahi dutela adierazi zuen Solabarrietak. Horrela, Venta Altako ur araztegiko atea zabalduko dituzte igandean Zadorra urtegi-ko urak etxebizitzetara heldu aurretik jasotzen duten tratamendua ezagutzera emanez.

Ur araztegi bisitaz gain, hainbat emanaldi izango dira igandean goizeko 10:30etatik eguerdiko 14:30etara. Esate baterako, itsas faunari buruzko

Hondakinen Plana eztabaidagai hilaren 26an Bizkaiko Batzar Nagusietan

■ *Saioan alderdien jarrerak argituko direla esan du Solabarrietak*

G. Agirre / Bilbo

BIZKAIKO Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketa Plana, Aldundiak iragan astean onartu zuena, hilaren 26an eztabaidatuko dute Batzar Nagusietan.

Saio horretan alderdi politikoek egitasmoari buruz duten jarrera argituko dela adierazi zuen atzo Maria Esther Solabarrietak, Ingurugiro diputatuak. Halaxe erantzun zien Solabarrietak planak Bizkaiko EA alderdiaren aldetik jaso dituen kritikei.

Ildo horretan, Plana «Bizkaikoa ezezik Europakoa» dela nabarmendu zuen Ingurugiro diputatuak, eta «filosofia Europako bera» dela gaineratu.

Hondakin solidoen birziklatzeaz, berrabiltzeaz eta murrizteaz gain, balorizazio energetikoa eta errausketa ere aurreikusten ditu planak. X



Solabarrieta eta Olabarria, Uraren Jaiaren aurkezpenean.

XOUSE SIMAL

Euskaldunon

GIDA komertziala



Igande honetan doan
EGUNKARIAekin

Egunkaria